

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

## 3095

*IRAGARKIA, 2019ko ekainaren 11koa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez jendurrean jartzen baitira instalazio hauen espedienteak: Euskal Autonomia Erkideagoan dauden eta 2021-2025 aldirako berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen merkataritza-erregimenetik kanpo uzteko eskatu duten instalazioak, neurri txikikoak direlako.*

Berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen merkataritza-erregimena arautzen duen martxoaren 9ko 1/2005 Legearen laugarren xedapen gehigarriak ezartzen du araubide horretatik kanpo uztea neurri txikiko instalazioak eta ospitaleak.

Hor xedatutakoaren arabera, instalazioek araubide horretatik kanpo uzteko eskabidea aurkeztu beharko dute autonomia-erkidegoak izendatutako organo eskudunaren aurrean, dagokion merkataritza-aldia hasi baino 22 hilabete lehenago. Eskabidearekin batera, hor ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da. Baldintza horiek honako hauetan garatzen dira: 317/2019 Errege Dekretua, apirilaren 26koa, zeinaren bidez zehazten baita 2021-2025 aldian gasak isurtzeko eskubideen merkataritza-erregimenean parte hartzeari dagokion arintze-neurria, eta arautzen baitira isurketa txikiko instalazioak berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen merkataritza-erregimenetik kanpo uzteko alderdi batzuk.

Halaber, xedapen gehigarri horrek hau zehazten du: organo eskudunak gutxienez hiru hileko informazio publikoko izapidea egin beharko du, eta, ondoren, espediente osoa bidali beharko dio Trantsizio Ekologikorako Ministerioari, gehienez ere dagokion merkataritza-aldia hasi baino 16 hilabete lehenago, Europako Batzordearen aurrean izapidetu dadin, 2003/87/EE Zuzentarauaren 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Azaldutakoa dela bide, bidezkoa da hiru hilabetez jendurrean jartzea, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, eta dagozkion alegazio edo oharra aurkeztu ahal izateko, instalazio hauen espedienteak: Euskal Autonomia Erkideagoan kokatuta dauden eta 2021-2025 aldirako berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen merkataritza-erregimenetik kanpo uzteko eskatu duten instalazioak, neurri txikikoak direlako.

Eranskinean daude jasota izapidetzeko onartu diren espedienteak: Euskal Autonomia Erkideagoan kokatuta dauden eta erregimen horretatik kanpo uzteko eskatu duten instalazioenak.

Informazio publikoaren izapidea bete behar duten instalazioen espedienteak ikusgai daude Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 11.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,  
IVAN PEDREIRA LANCHAS.

## ERANSKINA

Espediente zk.	Instalazioa	Udalerrria
16A33/2019/00004131	Cominter Tissu	Hernani
16A33/2019/00004093	Euskal Forging, S.A.	Irura
16A33/2019/00004096	Euskal Forging, S.A.	Sestao
16A33/2019/00004124	Michelin España Portugal, S.A.	Lasarte-Oria
16A33/2019/00004173	Sidenor Aceros Especiales, S.L.	Vitoria-Gasteiz
16A33/2019/00003923	Cerámica Marlo, S.A.	Armiñón
16A33/2019/00004143	Kem One Hernani, S.L.U.	Hernani
16A33/2019/00004043	Kosorkuntza, A.I.E.	Barakaldo
16A33/2019/00004044	Kosorkuntza, A.I.E.	Donostia